



05

PAPELES
DE ECONOMÍA
SOLIDARIA
EKONOMIA
SOLIDARIOAREN
PAPERAK

Gizarte Berrikuntza, Politika Publikoak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Enekoitz Etxezarreta

Aitziber Etxezarreta

Mikel Zurbano

Miren Estensoro



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

EKONOMIA SOLIDARIOA ekonomiaren alderdi guztiak (ekoizpena, finantziazioa, merkataritza eta kontsumoa) pertsonen eta komunitatearen garapenerako bitartekari gisa –eta ez helburu bezala– aldarrikatzen duen ikuspegi eta praktika bat da. Hori horrela, modelu ekonomiko nagusiaren alternatiba moduan aurkezten da, garapen iraunkor, bidezko eta parte-hartzaile bat sustatzen duen gizarte eraldaketarako tresna bat bezala.

REAS Euskadik –Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea– ekonomia solidarioaren ahalik eta indartze eta aintzat hartze handiena lortzea bilatzen du, esparru ekonomikoan alternatiba eraldatzaileak sortuko dituzten esperientzia eta tresnak bultzatzen. Ikuspegi horretatik, EKONOMIA SOLIDARIOAREN PAPERAK ikerketarako, zabalkunderako eta gizarte sensibilizaziorako tresna gisa aurkezten dira begirada kritiko eta alternatibo batetik.

05

PAPELES
DE ECONOMÍA
SOLIDARIA
EKONOMIA
SOLIDARIOAREN
PAPERAK

Gizarte Berrikuntza, Politika Publikoak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Enekoitz Etxezarreta
Aitziber Etxezarreta
Mikel Zurbano
Miren Estensoro

Etxezarreta, Enekoitz. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle laguntzailea (UPV/EHU). enekoitz.etxezarreta@ehu.es
Etxezarreta, Aitziber. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle agregatua (UPV/EHU). aitziber.etxezarreta@ehu.es
Zurbano, Mikel. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra (UPV/EHU). mikel.zurbano@ehu.es
Estensoro, Miren. Orkestra-Lehikortasunerako Euskal Institutuko ikertzailea. mestenso@orkestra.deusto.es

Laguntzailea:



Gizarte Berrikuntza, Politika Publikoak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa
REAS - Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Ekonomia Solidarioaren Paperak
Papeles de Economía Solidaria
5. zenbakia
2015eko azaroa

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria
Venezuela Plaza 1, 2. Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo
Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

L.Z.: Bi-2670-09

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Institutua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



Aitortu-Ez merkataritzarako-Partekatu baimen beraren arabera 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu. Lizentzia osoa:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/deed.eu>

Laburpena

Lan honen bidez, Gizarte Berrikuntza kontzeptuan sakondu, eta marko teoriko-analitiko bat eraiki nahi da, helburua izanik Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko ekimenak -besteak beste, Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS-Euskadi) barne hartzen dituen ekimenak- kokatzen eta balioesten lagunduko duen tresna bat sortzea. Bestalde, kontuan izanik zenbaterainoko garrantzia duen aliantza publiko-pribatuak Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko politika publikoak bideratzeko, tarte bat hartu dugu azaltzeko zertan den aliantza-eredu hori eta zeintzuk diren gakoak hura sendotu eta garatzeko.

Gizarte Berrikuntzaren adiera ez-utilitarista abiapuntu hartuta, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko erakundeek ekimenekin lotutako gizarte-berrikuntzak aztertu ditugu, eta, horretarako, CRISES erakundeak Quebecoko egoera azaltzeko baliatutako azterketa-markoa hartu dugu erreferente. Bestalde, xeheago azaldu ditugu CRISES erakundeak Gizarte Berrikuntza kontzeptua definitzeko baliatzen dituen elementuak, baita halako prozesuak kategorizatzeke baliatzen dituen hiru eremuak ere (gubernantza, elkar-erakitzea eta ekonomia plurala), eta gizarte-berrikuntzen bilakaera aztertu dugu gainera. Bukatzeko, Gizarte Berrikuntzarako interesgarriak izan litezkeen erreferentzien zerrenda aberaste aldera, labur azalduko ditugu *ondasun erkideak* kontzeptuari buruz azken aldiotan egin diren ekarpen nagusiak.

Aurkibidea

Sarrera	7
1. Abiapuntua: Gizarte Berrikuntzaren alderdi sozietario eta ez-utilitarista	9
2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Quebecen: sustapen-politikak eta agenteak	11
2.1. Ekonomia Sozial eta Solidarioa eta eraldatze-prozesuak	11
2.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko politika publikoak diseinatzea	12
3. Gizarte-berrikuntzen sistema Quebecen	15
3.1. CRISES: Gizarte Berrikuntzei buruzko Ikerketa Zentroa	15
3.2. Quebecoko Ekonomia Sozial eta Solidarioari begirako Berrikuntza Sistema	16
4. Gizarte-berrikuntza definitzeko proposamen kontzeptual eta metodologikoa	19
4.1. Hurbilpen kontzeptuala: gizarte-berrikuntza CRISEsen arabera	19
4.2. Hurbilpen metodologikoa: gizarte-berrikuntzaren eragin-esparruak	20
4.3. Gizarte-berrikuntzen eragin-esparruak zehazte aldera	22
• Gobernantza	22
• Elkar-ekoiztea eta elkar-erakitzea	23
• Ekonomia plurala	25
Ondorioak	27
Bibliografia	29

Sarrera

Dokumentu honen bidez, gizarte-berrikuntza kontzeptuan sakondu, eta marko teoriko-analitiko bat eraiki nahi da, helburua izanik Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko ekimenak -besteak beste, Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS-Euskadi) barne hartzen dituen ekimenak- kokatzen eta balioesten lagunduko duen tresna bat sortzea.

Hala, gizarte-berrikuntzaren adiera ez-utilitarista abiapuntu hartuta, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko erakundeek ekimenekin lotutako gizarte-berrikuntzak aztertuko ditugu, eta, horretarako, CRISES erakundeak Quebecoko egoera azaltzeko baliatutako azterketa-markoa hartuko dugu erreferente.

Bestalde, kontuan izanik zenbaterainoko garrantzia duen aliantza publiko-privatuak Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko politika publikoak bideratzeko, tarte bat hartuko dugu azaltzeko zertan den aliantza-eredu hori eta zeintzuk diren gakoak hura sendotu eta garatzeko.

Dokumentuaren egiturari dagokionez, lehenik, gizarte-berrikuntza kontzeptua egungo korrante teorikoen baitan kokatuko dugu. Hala, gaiari heltzeko dauden ikuspegiak errepasoa egin ondoren, kontzeptu hori zer adieratan erabiliko dugun zehaztuko dugu; izan ere, guk egin dugun hurbilpenaren arabera, kontzeptuak adiera sozietarioa eta ez-utilitarista du, eta gizarte-berrikuntzak izendatzen diren esperientziak, horrenbestez, gizarte-eraldatzailerak ere izan litezke.

Ondoren, dokumentu honetan baliatuko dugun erreferentzia teoriko nagusia jorratuko dugu: Quebecoko *Centre de recherche sur les innovations sociales*, CRISES

erakundeak garatutakoa, hain zuzen ere. Erakunde horiek noiz eta zergatik proposatu zuen azterketa-marko hori hobeto ulertzeko, urteen poderioz Quebecen sendotu eta indartu den berrikuntza-sistema deskribatuko dugu. Izan ere, sistema horrek ahalbidetzen du guk aztertuko ditugunak bezalako gizarte-berrikuntzak sortzea eta garatzea.

Bestalde, saiatuko gara erakusten berrikuntza-agenteen sarea indartu izana erlazionatuta dagoela ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko erakundeek bilakaerarekin berarekin. Hala, berrikuntza-sistema horrek ekonomia sozial eta solidarioaren alde egiten duten bertako erakunde esanguratsuen inguruan jirutzen duela azalduko dugu, eta, era berean, erakutsiko dugu zenbateraino dauden estu lotuta erakunde horiek izan duten bilakaera eta gizarte-berrikuntzaren beraren karakterizazioa.

Gure lana oinarritzen duen azterketa-markoa deskribatuta, tarte bat hartuko dugu aztertzeko nolakoa den politika publikoak bideratzeko aliantza publiko-privatuaren ereduak, gizarte-berrikuntza prozesua den heinean, eta, ondoren, gizarte-berrikuntzak neurtzeko eta ebaluatzeko proposamen metodologiko bat garatuko dugu. Horrenbestez, CRISES erakundeak proposatutako hurbilketatik abiatuta, sakon erreparatuko diegu gizarte-berrikuntzak prozesu gisa kategorizatzen dituzten hiru eremu nagusiei: gobernantza, elkar-erakuntza eta ekonomia plurala.

Dokumentuaren bukaeran, ondorioen atala jarriko dugu, eta, bertan, gure ekarpenaren helburu nagusia laburbiltzen saiatuko gara.

Bestalde, dokumentu honetako emaitzak zenbait prozesuren ondorio dira.

Alde batetik, 2012-2014 biurtekoan garatutako ikerketa-proiektu baten emaitzak bildu ditugu, **UPV/EHUren Unibertsitatea-Gizartea** mailako batenak, hain zuzen. Proiektu hura gauzatzeko, ikerketa-talde misto bat eratu zen: batetik, REAS (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) erakundeko zenbait kide, gizarte-agente gisa, eta, bestetik, Ekonomia Aplikatua arloko zenbait ikertzaile, zehazki, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua I departamentukoak. Proiektu haren helburua zen marko teoriko bat eraikitzea, bai REAS sareak berak bai REASEk barne bartzen dituen erakundeek erreferentzia akademikoa izan zezaten ekimen helburuz solidario, feminista eta berritzaileak aztertu eta kokatu ahal izateko.

Beste alde batetik, **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak** 2014ko deialdian finantzatu zuen "**Políticas Públicas Locales para una Economía Social y Solidaria**" (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aldeko Tokiko Politika Publikoak) izeneko proiektuaren baitan egindako hausnarketaren ondorio da dokumentu hau. Proiektu haren helburua zen ekonomia solidarioaren aldeko tokiko politika publikoei buruzko marko teoriko bat sortzea, esperientzia eta ekimen esanguratsuen azterketatik abiatuta. Esperientzia horien artean, oso esanguratsua

da Kanadakoa, Quebecekoa zehazki; izan ere, han, gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide luzea egin dute haien arteko elkarlana bideratu eta koordinatzeko, politika publikoak diseinatzeari begira.

Dokumentu honen egileetako bat CRISES erakundearen egon zen ikertzaile bisitari gisa, 2013ko uztail-urria bitartean, hain zuzen ere, erakundeak UQAM (*Université du Québec à Montréal*) unibertsitatearen barnean duen egoitzan. Egileek esker ona besterik ez dute hango adituentzat, bai ikertzaile bisitaria hartu zuten moduagatik, bai ikerketa-lan honetan laguntzeko agertu duten presuntasunagatik.

Era berean, azpimarratu nahi dugu REAS-Euskadi sareak ikerketa-lan honetan egin duen ekarpena oso baliotsua dela. Ikerketa-proiektua aurrera atera zedin alderdi interesatua izateaz harago, sare horretako ordezkariak rol aktiboa izan dute proiektu honen baitan sortu diren gune orotan, izan ezagutza partekatzearekin, izan elkarlanean eraikitzearekin. Lan egiteko eta lan-harremanak kudeatzeko molde berri hori berez da gizarte-berrikuntza unibertsitate-ikerketaren esparruan. Lerro hauen bidez, gure esker ona adierazi nahi diegu, langile nekazekin direlako eta haien ahaleginari esker itxaropenez begiratu diezaiokegulako etorkizunari.

1. Abiapuntua: Gizarte-berrikuntzaren alderdi sozietario eta ez-utilitarista

Gizarte-berrikuntza kontzeptua gaurkotasun handikoa da, baina anbigua ere gerta liteke, eta zalantza sortu, askotarikoak baitira haren testuinguru eta interpretazioak. Esate baterako, asko baliatu izan da esku-hartze politikoez eta esku-hartze sozialez hitz egiteko; izan ere, erreferentzia giltzarria da pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka edota talde gutxituak ahalduzaren alde lan egiten duten erakunde eta gizarte-mugimenduentzat, besteak beste (Jessop et al. 2013). Erakunde publikoek gizarte-berrikuntza helburu duten programa berriak ezarri dituzten heinean (nazioarte-, estatu-, lurralde- zein udal-mailakoak), kontzeptu horren inguruko diskurtsoak ugaltu egin dira, bai eta bera zedarrizteko ahalegin-lanen eta proposatutako marko teorikoen kopurua ere (Klein, 2013).

Zenbaitzuen ustez, gizarte-berrikuntza tresna bat baino ez da, gure gizarteek jasaten dituzten arazo larri batzuk konpontzeko. Ikuspuntu hori erredukzionista da, gizarte-berrikuntzaren alderdi utilitarista baino ez baitu hartzen, eta, hala, haren egitekoa egungo garapenereduak sortutako arazoak bideratzera mugatuko litzateke, eta, ildo horretan, logika neoliberalaren arabera beste tresna bat gehiago izango litzateke.

Gizarte-berrikuntzaren alderdi utilitaristan ez, baizik eta sozietarioan zentratutako marko teorikoa garatu beharrik zenbait ekarpen akademiko sortu ditu. Ekarpenerietako bat da *The International Handbook on Social Innovation* (Gizarte-berrikuntzari buruzko Nazioarteko Gidaliburua) (Moulaert et al, 2013), zeina marko teoriko bateratua duen erreferentziatzko azterketa baita. Egileek diotenez, gizarte-berrikuntza kontzeptuaren inguruan

dagoen argitasun eza ez zaio leporatu behar berez etengabe eraldatzen ari den kontzeptu bat izateari, baizik eta boladan dagoen eta gizarte-ongizatearen arrazionalizazioarekin eta ongizate soziokulturalaren merkantilizazio edo komodifikazioarekin lotutako praktika eta politika askotarikoetan arinkeriak erabiltzen den terminoa izateari (Moulaert et al, 2013).

Moulaert et al. (2013) egileen arabera, gizarte-berrikuntza kontzeptuaren adiera egokiak erreferentzia egiten dio diziplina askotarikoak barne hartzen dituen kategoria bati, eta gizartearen baitako aldaketak ardatz hartzen dituen ikerkuntza zientifikoa ahalbidetzen du. Aldaketa horien oinarrian daude, besteak beste, ekintza kolektiboa, politika publikoak, mugimendu soziopolitikoak, erakunde formalak eta ez-formalak. Ikuspuntu horrek gizarte-berrikuntzaren alderdi epistemologikoa azpimarratzen du, eta bereziki nabarmentzen du zenbaterainoko indar soziala eta politikoa daukan kontzeptu horrek garapen-estrategia alternatiboa diseinatzeko ezinbesteko osagarritzat jotzen bada. Gizarte-berrikuntza, ildo horretatik, diziplina arteko ikerkuntzaren motorra eta ekintza kolektiboa gidatuko duen tresna bihurtzen da, osagai biak elkarlotuta baitaude ezinbestean. Gizarte-berrikuntza, azken finean, elkartasuna eta ekitatea adierazten dituen ideia-motorra da, eta gizarte inklusiboa eraikitzearen aldeko ikerkuntza eta ekintza sustatzen ditu.

Dena dela, gizarte-berrikuntza ez da baldintzarik gabe aplikatu litekeen errezeta; kontuan hartu behar dira kasuan kasuko testuingurua eta aldagaiak. Gizarte-egoera jakin bat eraldatu nahi izatekotan, gizarte-berrikuntzaren aldeko ikertzaileek aintzat hartu beharko dituzte bai

egoera globala bai tokikoa, eta teoria eta praktikaren arteko elkarreragin sendoan oinarrituta lan egin beharko dute (Moulaert, et al, 2013).

Gizarte-berrikuntzari buruzko ikuspuntu hau bera duten zenbait egilek, hau da, haren alderdi soziala nabarmentzen dutenek, gizarte-berrikuntzaren eredutzat jotzen dituzte oinarri komunitarioa duten ekimenen arteko konbergentzia-prozesuak, gizarte-beharrei aurre egiteko sortuak, non bat egiten duten enpresa sozialak, gizarte-babeserako agentzia publikoak (Estatuak zuzenduak), mugimendu sozialak eta erakundeak (Jessop et al. 2013). Ikerketa-lerro hori gero eta indar handiagoa hartzen ari da diziplina-jatorri askotariko egileen artean, eta agerian uzten ari da noraino dauden lotuta eta zenbat sinergia sortzen den bi kontzeptu-giltzarri hauen artean: gizarte-berrikuntza eta ekonomia soziala.

Marko teoriko berri honek aplikazio-eremu zabala du gizabanakoen zein gizartearen beharrei aurre egitea helburu duten ekimenen artean (gizarte-zerbitzuak...),

baita gizabanakoen zein gizartearen ahalmena gartztea helburu dutenen artean ere. Gizarte-berrikuntzaren ikuspuntu hau hurbil dago giza garapena kontzeptutik (Estensoro y Zurbano, 2010). Terminoak indarra hartu du zenbait esparrutan, eta egoitza eta zaintza barne hartzen dituen esparruan, esate baterako, etxebizitza komunitarioak eta hartzaindegiak dira gizarte-berrikuntzaren emaitzetako batzuk (Bouchard, 2005). Etxebizitza komunitarioen filosofia da etxebizitza-beharrari erantzutea neurritz gain zorpetu gabe, merkatu librean dauden espekulazio-legeetatik kanpo, eta, horretarako, irabazi asmorik gabeko kooperatibak edo erakundeak antolatzen dira. Halako ekimenak sendo errotuta daude CRISES erakundearen baitan eta Quebecoko ekonomia sozialaren tradizioan.

2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Quebecen: sustapen-politikak eta agenteak

2.1. Ekonomia Sozial eta Solidarioa eta eraldatze-prozesuak

Levesque (2013) ikerlariaren hitzetan, Quebecoko ekonomia sozialak kooperatiba-mugimenduan du jatorria, zeinak, katolizismo sozialaren oinarri ideologikoaren abarotan, bi sektore nagusitan sortu baitzituen kooperatibak: finantzarioan (Desjardin) eta nekazaritza-elikagaien sektorean (ekoizteari baino, elikagaiak erosi eta banatzeari begirako kooperatibak). Gaur egun ere bi sektore horiek dira dinamikoak kooperatiba-mugimenduaren barnean, etxebizitza-kooperatibekin batera. Zerbitzu-kooperatibak dira, finantzarioak nagusiki, eta gizarte-oinarri nazionalista eta kontserbadorea dute gehienbat, soziologikoki *Parti Québécois* (PQ) alderdiak ordezkatzeko duenarekin bat datorrena.

60ko hamarkadan bi prozesu gertatu ziren aldi berean. Alde batetik, PQ alderdiak "Révolution tranquille" (Iraultza lasaia) delakoa abiatu zuen, herrialdea modernizatzea helburu, eta, hala, bokazio estatalista argia zuten azpiegitura publiko eta sozialak sortu, eta ekonomia sozialaren aldeko agenteak babestu zituzten, gehienbat merkatu-agente gisa arituko zirenak. Beste alde batetik, eta aldi berean, mugimendu komunitario-asoziazionista ugari zabaldu zen, baita irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarte ugari sortu ere, besteak beste, elikadura, osasuna, etxebizitza eta zaintza arlokoak.

Elkarte-sare hori sortu izanak jarrera-aldaketa bat ahalbidetu zuen: gizarte-prestazio berriak eta hobeak Estatuari eskatzen zitzaizkioneko "advocacy" jarrera nagusiak beste jarrera bati eman zion bide, eta bokazio sozial argiko enpresak sortzeko dinamika berri bat jarri

zen abian. Levesque (2013) autoreak hor kokatzen ditu Quebecen sortu ziren lehen "enpresa sozialak", zeinak hasieran aldendu egin baitziren lurraldeko ekonomia soziala ordura arte suspertzen aritutako agenteetatik.

80ko hamarkadan, Quebecoko ekonomiak krisialdi sakona jasan zuen, gizarte-esparru guztietan eragin zuena (Klein et al, 2012). Batetik, enpleguari eragin zion krisialdia izan zen, eta, lan-baldintzak gero eta prekarioagoak ziren testuinguru hartan, lana antolatzeko Taylorrek proposatutako eredu legitimotasuna galtzen joan zen. Bestetik, Ongizate-estatuaren (edo Estatu ongilearen) krisialdia izan zen, Estatuaren esku-hartzea oso eztabaidatua izan baitzen. Eta, horrenbestez, krisialdia gizarte-oinarrira iritsi zen: bizi-baldintzak gogortu egin ziren, eta agerian gelditu zen ez zegoela gizarte-azpiegiturarik kolektibo ahulenak laguntzeko eta komunitateari gartzten laguntzeko. Testinguru historiko horretan jaio zen CRISES erakundea, zeinak izenean bertan ematen baitu lurraldeak une hartan jasaten ari zen krisialdien berri.

Krisialdien testuinguruan, hainbat prozesu interesgarri abiatu ziren ekonomia sozialaren baitan, eta erakunde eta elkarte komunitario berriak sortu ziren: haien eskutik, ekonomia sozialaren aldeko beste agente-belaunaldi bat agertu zen. Ekonomia sozial "berriaren" eta "zaharraren" arteko elkarbizitza gero eta tirabiratsuagoa zen, eta elkarri egindako interpelazioak gero eta ugariagoak. Haien artean, baziren jokabide-aldeak -gizarte-eraldatzearen aldeko gizarte-mugimenduei lotuago zegoen berria, eta zaharra, berriz, elkarte kooperatibo tradizioaletan zentratzen zen-, baina horrek ez zuen eragotzi haien arteko eztabaida-prozesua abiaraztea, alde horiek gainditzea ekarriko zuena, eta 90eko hamarkadatik aurrera

dinamika konbergenteak bilatu ziren. Hala, esan bezala, 90eko hamarkadatik aurrera, ekonomia sozialaren aldeko zenbait eragileren erabakimenez (CIRIEC-Quebec, CIRIEC-Kanada, etab.), indarra hartu zuen ekonomia sozialaren ikuspuntu integratzaile batek, zeinak lurraldeko gainerako eragile ekonomikoen aldean izaera autogestionatua eta gizarte-eraldatzaila baitzuen.

Aldi berean, herrialde mailako zenbait "Goi-mailako Konferentzia Sozio-Ekonomiko" egin ziren, eta, bertan, askotariko eragile sozial eta ekonomikoek parte hartu zuten. Goi-mailako konferentzia haietan langaia izan zen herrialdeko behar nagusien inguruko diagnostiko bateratua egitea eta behar eta erronka nagusiei aurre egiteko estrategiak erabakitzea. Konferentzia haien emaitzetako bat izan zen "Ekonomia Soziala Lantzeko Taldea" sortu izana, Nancy Neamtan buru, gerora *Chantier de l'Économie sociale* delakoaren jatorria izango zena. Talde haren lana ezinbestekoa izan zen, sektorea elkartu eta kohesionatu ez ezik, garapen-esparru berriak zabaldu baitzituen ekonomia sozialaren aldeko elkarte eta erakundeentzat.

Egoera berri haren baitan gizarte-berrikuntzarako zenbait proiektu jarri ziren abian, esperientzia-pilotu gisa. Proiektu horietako batzuk ordura arte gutxi esploratutako esparruetan garatu ziren (etxeko laguntza), eta beste batzuek, berriz, lehendik garatutako esperientziak instituzionalizatzeko helburuz indartu ziren (etxebizitza, haurtzaindegia...).

Era horretan, herrialdeko garapen-eredu berariazko bat sortu zen, "Quebeceko garapen-eredua" deritzona, oinarrian duena askotariko agenteen arteko adostasuna (Bouchar et Levesque, 2010; Klein et al, 2012). Laburbilduz, hauexek dira eredu horren ezaugarriak:

- Gizarte-adostasun zabal batek aldarrikatzen du ekonomia soziala bide egokia dela enplegua sortu eta esparru berrietan jarduteko.
- Publikoaren eta sozialaren arteko lankidetzadina mikak eta elkarlanak sortzen dira; izan ere, proiektu guztiek dute finantziario publikoa, baina, aldi berean, autonomoak eta autogestionatuak izaten dira, eta Estatuak estatus hori aitortzen die. Horrenbestez, elkar-ekoiztea eta elkar-erakitzea bezalako dinamikak garatzen dira (Vaillancourt, 2012, 2013), zeinak gizarte-berrikuntzen ezaugarri bihurtuko baitira.

Adostasun- eta lankidetzadina eredu horren gainean garatzen eta sendotzen dira ekonomia sozialaren aldeko ekimenak Quebecen: gizarte zibil antolatutako sustatu eta bultzatutako ekimenak dira, laguntza publikoa dutenak, eta hiru esparru nagusitan garatzen dira, CRISESen arabera gakoak direnak, eta gizarte-berrikuntzak sailkatzeko baliatu ohi direnak (Klein et al, 2012): i) lan-esparrua; ii) gizarte-ongizatezko zerbitzuen esparrua; iii) lurraldegarapenerako esparrua.

2.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko politika publikoak diseinatzea

Aztertzen ari garen garaian Quebecen abian jarri ziren ekonomia sozialaren aldeko politika publikoek eta dinamikek bi berezko ezaugarri dituzte:

- Lehenengoa: aliantza publiko-pribatuaren oinarrian, elkar-erakitze prozesua dago (alderdien elkarlanaren bidez eraikitzen da aliantza publiko-pribatua), lehen faseetatik (diseinatu, planifikatu) politika publikoak implementatu bitartekoetara. Ildo horretan, sektoreko egiturak sendotzekoari begirako politika bereziak alde batera utzita, ekonomia sozialak ekonomia sozialaren sustapena eta politika soziala zeharkatzen ditu. Elkar-ekoizteko eredu batzuen aldean, ekonomia sozialaren eginkizuna ez da mugatzen soilik zerbitzu jakin batzuk eskaintzera, areago, politika publikoak garatzeko eragile nagusitzat jotzen da.
- Erabaki publikoak hartzen dituztenen ikuspuntu positibo hori ekonomia sozialaren aldeko agente askotarikoen ahalegin itzelaren ondorioa da. Quebeceko historia garaikidean hainbat konbergentzia-prozesu abiatu dira, guztiak ere antagonismoa eta harreman zailak nagusi ziren testuinguruetan gertatuak, baina, azkenean nagusitu den ikuspegiaren arabera, erreallitatea plurala da, baina era bateratuan artikulatu beharrekoa. Aitortza publikoa, horrenbestez, ekonomia sozialak bultzatutako konbergentzia-prozesuen emaitza da.

Benoit Levesque (2013) autoreak luze eta zabal aztertu du ekonomia sozialak Quebecen izan duen aitortza-prozesua, prozesu horren lekuko izan baita, baita nabarmen eragin ere haren bilakaeran. Hala, autore horren arabera, ekonomia sozialaren alderdi bateratzaile eta barne-hartzaileak ez zuen aitortzarik lortu 90eko hamarkadaren erdialdera arte, zehazki 1996. urtera arte, urte hartan

sortu baitzen Ekonomia Soziala Lantzeko Taldea (ESLT). Ordurako, ekonomia soziala terminoak bide luzea egina zuen, adostasunezko eta desadostasunezko unez betea, baina, handik aurrera, talde hark bildu zituen agente askotarikoen ahaleginei esker, esperientzia askotarikoak barne har zitzakeen termino gisa gelditu zen.

Esan bezala, Levesque (2013) autoreak ondo dokumentatu du konbergentzia-prozesu hori, zenbait une historiko ezagutuko dituen. Hala, argi gelditzen da Quebecoko kooperatiba-mugimenduaren barnean betidanik izan direla bi ikuspuntu aldi berean: bata joera liberalekoa, eta bestea katoliko-soziala; diskurtso eta estrategia bateratuen inguruan koherentzia erakutsi beharrak ez du beti izan behar besteko adostasun eta esparrurik. Bestalde, lan honetan bertan lehenago aipatu dugunez, 60ko hamarkadatik aurrera zenbait mugimendu berri sortu ziren gizarte zibilarren baitan, ekonomia sozialaren aldeko bestelako kooperatiba eta ekimenak bultzatuko zituztenak, eta, hasieran behintzat, mugimendu horietako asko ez ziren identifikatzen kooperatiba tradizionalak ordezkatzen zituzten erakunde nagusiekin.

Quebecoko Ekonomia Soziala Lantzeko Taldearen (ESLT) barne-erabaketa horiek ez ziren soilik antolamendu mailakoak izan, hau da, kooperatiba-mugimendu antolatu baten eta sortu berriak ziren beste batzuen artekoak. Ideologia aldetik ere aurkakotasun handia zegoen; izan ere, kooperatiba-mugimendu tradizionalak garapen fordistakoa zuen helburu, eta sortu berriak ziren mugimenduek (edo talde komunitarioek), berriz, garapen-eredu alternatiboak planteatzen zituzten, ekonomia feminista edo sozialismo autogestionatua bezalako moldeetakoak.

Zaharraren eta berriaren arteko eztabaida hori beste ildo batetik abiatu zen 80ko hamarkadatik aurrera, hiru prozesu historikok bat egin zutenean: bat, Parti Québécois alderdia boterera iritsi zen (kooperatiba-ereduaren aldekoa erabat); bi, krisialdi ekonomiko-industrial latza lehertu zen, eta hiru, krisialdiak beste arazo bat utzi zuen agerian, hau da, ongizate-estatua zalantzarazko zen. Une horretatik aurrera, erantzun eta konponbide berrien bila, gizarte zibileko zenbait sektore buru zirela (sindikatuak, herritarren elkarteak, Ciriéc-Kanada erakundeko eragile akademikoak...), zenbait konbergentzia-prozesu abiatu ziren. Lehen aipatu dugunez, prozesu haien emaitza izan zen Ekonomia Soziala Lantzeko Taldea (ESLT) bera sortu izana, eta talde horrek *Chantier de l'Économie sociale* erakundearen babespean lan egin zuen, zeinak taldearen

lana modu organikoan kokatu baitzuen Quebecoko gobernu-egituraren barnean (Kontseilu Betearazlean, hain zuzen ere).

Bi erakunde horiek sortu izana inflexio-puntu argia da politika publikoen diseinuaren esparruan, gizartedynamika berri baterako abiapuntua ezarriko baitute (Levesque, 2013). ESLTren osaketa bera konbergentzia-prozesu berri baten erakusgarria da: haren baitan elkarlanean arituko dira kooperatiba-mugimenduetako ordezkariak, sindikatuak, herritarrek osatutako elkarte komunitarioak, bai eta emakume-taldeak ere. Agente horien guztien interesak, jakina, ezberdinak dira (are gehiago, baita aurkakoak ere), eta, hala, bakoitzak bere arazoak ditu taldera hurbiltzeko: gobernuak gizarte-behar berriei erantzun dioten eta kostu txikiagoa izango duten lanpostuak sortzeko aukera aprobetxatu nahi izango du; kooperatibek, bestalde, kooperatiba-eredua eta haren jardun-esparrua zabaltzeko aukera ikusiko dute; sindikatuak, berriz, ondo ikusiko dute sektore sortu berriak garatzen laguntzea, betiere, kalitatezko enplegua sorrarazten badute eta enplegu publikoa galarazten ez badute; emakume-taldeek, azkenik, *advocacy* erakundearen parte-hartzea bultzatzen dute, eta emakumei ordaintzen ez zaizkien lanak ikustarazten jardungo dute. Desjardins kreditu-kooperatibak, azkenik, berebiziko eginkizuna beteko du, diruz eta egituraz hornituko baitu taldea.

ESLTren lanak, horrenbestez, ekonomia sozialaren definizio zabal eta barne-hartzaileago baten aldekoa izateaz gainera, bi jardun-lerro nagusi izango ditu: esperientziapilotuak jarriko ditu abian sektore sortu berrietan (baita ekonomia sozialak arrakastaz garatutakoetan ere), eta, bestalde, lan egingo du Quebecoko gobernuaren aintzatespena eta haren aldeko jarrera lortzeko.

Lehen jardun-lerro nagusiari dagokionez, era askotako ekimenak sustatu zituzten garapen iraunkorarekin, tokiko garapenarekin eta landa-garapenarekin lotutako sektoreetan. Datu batzuk emate aldera, etxeko laguntza-zerbitzuak eskaintzen zituzten 100 enpresa baino gehiago sortu ziren (5.000 lanpostu eta 80.000 erabiltzaile), eguneko zentroak 600 izatetik 1.000 izatera pasatu ziren (10.000 lanpostutik 40.000 lanpostura), etxebizitza komunitarioen kopurua asko igo zen (45.000tik 65.000ra) eta beste hainbeste esperientzia interesgarri sortu zen (hondakinak kudeatu, birziklatu eta berrerabiltzeko gu-neak, gizarteratze-enpresak...).

Bigarren jardun-lerroarekin lotuta, babes publikoak bideratutako tresna eta laguntzek hiru helburu nagusi izan zituzten: ekonomia sozialeko erakundeak sustatzeko agentziak indartzea, enpresa arteko sareak sustatzea eta prestakuntza teknikoa bermatzea.

Tresna eta laguntza horiek guztiak bideratzeko, Quebec-eko gobernuak eskuduntza osoa zuen ekonomia sozialeko erakundeen esparruak (lau nagusiki: kooperatibak, mutualitateak, langile-funtsak eta ekonomia-jarduerazko elkarteak) erregulatzeko, baina arazoa zen ardura hori banatuta zegoela gobernuko zenbait departamentu edo sailetan. Gauzak horrela, sektoreko erakunde esanguratsuenek berebiziko eginkizuna izan zuten, gaur egun ere irauten duen buru biko antolamendua erakusten baitute: alde batetik, *Conseil Québécois de la coopération et de la mutualité* dago, eta haren eginkizun nagusia da Quebecoko kooperatiben eta mutualitateen interesak defendatzea eta haien garapena bermatzea (CCQM, 2012); beste alde batetik, *Chantier de l'Économie sociale* dago, eta haren eginkizuna zabalagoa da; izan ere, ekonomia sozialeko erakundeak sortu eta garatzearekin batera, haren helburua da Quebecoko ekonomiaren pluraltasuna bultzatzea, ekonomia soziala, azken finean, Quebecoko egitura sozioekonomikoaren osagarria baita (Chantier de l'Économie sociale, 2003).

Laburbilduz, ekonomia sozialaren aldeko politika publikoen ereduaren oinarrian, Quebecoko gobernuaren aitortza esplizitua dago, baita haren aldeko jarrera ere (gutxi-asko nabarmena, gobernuan dagoen alderdiaren arabera), eta hori konbergentzia-prozesu baten ondorioa da, eta, hala, gaur egun ekonomia soziala mintzagai eta helburu legitimoa da (zenbaitetan lehentasunezkoa), politika publikoak diseinatzeko eta inplementatzeko orduan.

Levesque (2013) egileak dioenez, emaitza on horren gakoetako bat gobernuaren eta sektorearen arteko lan-kidetzaren harremana da, horrek ekartzen baitu finantziario-sistema sendoa eta egonkorra. Ekonomia sozialari

begirako berrikuntza-sistema aztertuko dugun atalean erakutsiko dugunez, laguntza publikoak emaitza ikusgarriak eta neurgarriak izan ditu hainbat arlotan (prestakuntza, ikerkuntza eta zerbitzu teknikoak, besteak beste); datu bat ematearren, tokiko garapenerako zen-troetan, 1998. eta 2004. urteen artean, ekonomia sozialeko 3.765 proiektu abiatu dira.

Baina bada beste gako bat, aurrekoa bezain garrantzitsua: ekonomia sozialeko agente guztiek gaitasun eta ahalmen handia erakutsi dute aliantzak egiteko eta askotariko osagarriak bildu eta osotasun koherentea egituratzeko. Levesque (2013) autorearen esanetan, Quebecoko eredu Frantziakoan inspiratzen da, baina alde handiak daude haien artean. Alde batetik, frantziar eredu-ean, sektoreko kooperatiba eta mutualitate indartsuenek izan dute lidergoa konbergentzia-prozesuetan; Quebecen, berriz, kooperatiba txikiak, herritarrek osatutako elkarteak eta emakume-taldeak izan dira motorra. Beste alde batetik, frantziar eredu-ean ustezko konfrontazioa dago ekonomia solidarioaren eta ekonomia sozialaren artean, eta, Quebecen, berriz, ez da halakorik; are gehiago, uste zabaldua da ekonomia solidarioak aberastu egiten duela ekonomia sozialaren esparrua.

Dena dela, autore beraren ustez, Quebecoko kasuan, *Conseil* eta *Chantier* delakoek gehiago hitz egin beharko lukete haien artean; izan ere, buru biko egituratze hori gatazka-iturri etengabea gertatu da. Kooperatiba handiek lidergo handiagoa izan beharko lukete, eta aholkubatzorde bat egituratu beharko litzateke, ekonomia sozialaren aldeko agente guztiak ordezkatuko litzatekeena, eta, gobernuarekiko tratuari begira, haien guztien negoziatzeko ahalmena hobetuko lukeena guztien interespeko gaitan.

3. Gizarte-berrikuntzen sistema Quebecen

3.1. CRISES: Gizarte Berrikuntzei buruzko Ikerketa Zentroa

CRISES¹ 1986an sortu zen, Benoit Levesque eta Paul Belangerren ekimenez, gizarte-berrikuntzei buruzko ikerketak egiteko helburuz. Quebecen ekonomia sozialaren eta gizarte-berrikuntzaren alde lan egiten duten pertsona, talde eta zentro guztiak biltzeko helburu estrategikoa izan zuen hasieratik, eta formalki, bederen, ez dago lotuta inolako unibertsitatearekin. Berez, Quebeceko ia unibertsitate guztietako irakasleak daude modu batera edo bestera erakundearentzat lan egiten duten kideen artean (izan erakundearekin lotura formala duten irakasleak, izan irakasle laguntzaileak).

Ikerketa-zentroa den aldetik, haren eginkizun nagusiak dira zientzia-topaketak antolatzea (mahai-inguruak, mintegiak, kongresuak...), nazioarteko zein herrialde mailako ikerketa-proiektuetan parte hartzea eta askotariko testu zientifikoak argitaratzea (aldizkari eta liburu zientifikoetarako artikuluak, kongresuetarako hitzaldiak, doktorego-tesiak...). CRISESek finantziazio publikoa dauka, baina finantziazio-bide propioak ere baditu, ki-deek hainbat ikerketa-proiektutan parte hartzen dutelako, eta hala finantzatzeko dira zentroko jardura eta ekimen gehienak.

Hasiera batean, CRISESen ikerketa-ildo nagusiak "Enplegua eta Lana" eta "Ekonomia Soziala" ziren. Denboraren poderioz, bi ikerketa-lerro horiek dibertsifikatu egin ziren, eta ekonomia soziala ikerketa-lerro guztiek zuten

zeharkako ardatza bihurtu zen. Gaur egun, ekonomia sozialaren aldeko erakundeak kudeatzeak ikerketa-lerro bat hartzen du.

CRISESen helburua gizarte-berrikuntza eta gizalteraldaketa izanik, bere egitura antolatzeke, lau ikerketa-lerro nagusi² ditu zabaldua beste horrenbeste esparrutako dinamikak aztertzeke:

- i) politika publikoak, eta haietan eragiten duten gizarte-eskakizun eta gizarte-praktikak,
- ii) kolektiboak eta haiek lurraldearekin duten lotura;
- iii) enpresa kolektiboak, eta, bereziki, ekonomia sozialeko enpresak, enpresa publikoak (edo estatuko sozietateak) eta enpresa-molde hibridoak;
- iv) enplegua eta lana, eta, bereziki, enplegu-politiken bilakaera eta lan-baldintzak.

Sarreran aurreratu dugunez, CRISES erakundeak Quebeceko kasua oinarri hartuta egindako hurbilketa da guk lan honen bidez garatu nahi izan dugun azterketamarkoaren abiapuntua. Ekonomia sozialari buruzko hurbilketa hori zertan den hobeto ulertzeak testuinguru hura ezaugarritzen zuten alderdiak ezagutzea eskatzen du, baita haren bilakaera historikoa ere. Hurrengo atletan, horrenbestez, testuinguru haren ezaugarriak azalduko ditugu, kontuan hartuta azalpen hori gure interpretazioetan oinarrituta dagoela, eta, hortaz, zehazgabetasun-zantzuak izan ditzakeela. Izan ere, aintzat hartu

¹ <http://crises.uqam.ca/>


² <http://crises.uqam.ca/recherche/axes-de-recherche.html>

behar da distantzia bat dagoela (fisikoa eta kulturala) aztergaiaren eta aztertzaileon artean, eta, horrenbestez, gure oharrak interpretatuztat baino ezin dira hartu, errealtate dudarik gabe konplexuago eta alderdi askotariko batera hurbiltzeko ahalegintzat, alegia.

3.2. Quebeceko Ekonomia Sozial eta Solidarioari begirako Berrikuntza Sistema³

Levesque (2011a) autorearen arabera, Quebecekoa ekonomia sozialari begirako benetako berrikuntza-sistema da, han ekonomia soziala aztertzen eta sustatzen duen

egitura publiko-pribatu zabala baitago. Ekonomia sozialari begirako berrikuntza-sistema hori (ik. 1. Irudia) aha- legin bateratuen emaitza da, instituzionalizatzeko-prozesu bateratu baten lorpena, zeinean parte hartu duten, alde batetik, administrazio publikoek (gehienbat, Quebeceko Gobernuak) eta, bestetik, ekonomia sozialaren aldeko agenteek, bik bereziki: *Chantier de l'Économie sociale*⁴ eta *Conseil Québécois de la coopération et de la mutualité*⁵. Bi agente horiek berebiziko lana egin dute, betidanik, ekonomia sozialari buruzko ikerkuntza eta pres- takuntza sustatzeko.



Iturria: Levesque (2011a).

³ Atal honetan, sistema horren parte diren agente nagusiak aipatuko ditugu soilik; izan ere, sistema berez oso konplexua da, eta agente-sare zabalak osatzen du. Gaia sakonago joratzeko, ezinbestekoa da bi artikulua hauek irakurtzea: "Innovations sociales et pouvoirs publics : vers un système québécois d'innovation dédié à l'économie sociale et solidaire. Quelques éléments de problématique", Benoit Levesque (2011a), eta "La Innovación social como factor de transformación social: el caso del modelo quebequense", Juan Luis Klein et al. (2012).

⁴ 1998an sortutako erakunde autonomoa da, gobernuak eta Desjardinek nagusiki finantzatu; haren gobernu-organoan ordezkatuta daude ekonomia sozialaren aldeko agente nagusiak: lurraldeetako ordezkariek, ekonomia soziala sustatzea helburu duten erakundeak, gizarte-mugimenduak eta unibertsitateetako ordezkariek. Haren eginkizun nagusia da ekonomia sozialaren aldeko ekimenak sustatzea eta sendotzea, Quebeceko garapena bermatzen duen agenteak den aldetik. <http://www.chantier.qc.ca/>

⁵ Quebeceko kooperatiba eta mutualitateak ordezkatzen dituen erakunde nagusia da, eta kooperatiba-mugimenduaren eledun nagusia gobernuaren aurrean. <http://www.coopquebec.coop/fr/accueil.aspx>

Horrenbestez, ikerkuntza eta prestakuntza dira sistema horren giltzarriak, eta, hala, programa-eskaintza zabalago ekonomia sozialari buruzko prestakuntza eta espezializazioa lortzeko. Alabaina, CRISESen berariazko esparruari begira, ez dago graduondoko ikasketak eskaintza espezifikorik, hau da, ez dago Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko edo Gizarte Berrikuntzari buruzko berariazko graduondo-ikasketarik herrialdean. Zenbait unibertsitatek ekonomia sozialari buruzko berariazko graduondo-ikasketak⁶ eskaintzen dituzte, bai, baina ikuspegi profesional eta praktikoagoa dute. Bestalde, *Chantier* delakoak lanbide-heziketako ikastaroak eskaintzen dizkie ekonomia sozialarekin eta gizarte-ekintzarekin lotutako esparruetan jarduten duten langileei, edozein izanik ere haien lanbidea eta jardun-esparrua. *Conseil* delakoak ere funts bat dauka, kooperatiba eta mutualitateetan jarduten duten langileek beraiek hornitzen dutena, helburu nagusizat duena gazteak prestatzea ekintzaitza-gaietan.

Ikerkuntzari dagokionez, CRISES sare zabal baten barnean dago, ekonomia sozialari buruzko ikerketak egiten dituzten zentro eta talde askotarikoak biltzen dituena. Modu autonomoan finantzatzen diren ikerketa-proiektu ugari dituzte, eta haiei ekiteko sortzen diren lantaldeek⁷ iraunaldi jakin bat izaten dute normalean. Ikerketa-lan zabal hori garatzeko beste gako bat da ahalmen handia erakusten dutela halako gaietan inplikaturik diren ikasleak erakartzeko, eta, helburu horri begira, master bukaerako lanak (edo memoriak) eta doktorego-tesiak bideratzen dituzte edo ikerketa-proiektu jakinetarako ikertzaile-laguntzaileak (*assistants de recherche*) kontratatzen dituzte. Nabarmenezkoa da, bestalde, oinarrizko ikerkuntza helburu duten proiektuez aparte, ugariak direla "elkarlanean egindako ikerketa" edo "ikerketa-ekintza-partaidetza" irizpideen arabera proiektuak.

"Ikerketa-ekintza-partaidetza" moldeak gainditu egiten du subjektu ikertzailea (unibertsitatea) eta ikergaia den objektua (ekonomia soziala) osagai biko eskema, eta ikerketa-talde mistoak proposatzen ditu, non ekonomia

sozialeko erakundeen ordezkariak eta unibertsitateko kideak biltzen diren eta ezagutza elkarlanean eraikitzeko dinamikak sortzen diren: unibertsitateak oinarri teorikoak eta tresna metodologikoak eskainiko ditu; ekonomia sozialeko agenteek, berriz, beren ezagutza enpirikoa, beren "esperientzia" (Fontan et al., 2013). Hala, "ekintza bidezko heziketa" dinamikak sortzen dira. Ikerketailek ikerketa-prozesu osoan parte hartzen dute (disseinutik hasi eta ondorioak atera arte), ezagutza partekatzen dute eta proiektua bera bideratzen eta kudeatzen dute. Horren guztiaren ondorioz, CRISES punta-puntako zentro bihurtu da ekonomia soziala aztertzeko molde metodologiko horretan (Fontan et al., 2013; Bussières, et al, 2012).

Era berean, UQAM unibertsitateak *Service aux collectivités* izeneko zerbitzua eskaintzen du, eta, haren bidez, komunitate akademikoak laguntza eskaintzen die hala eskatzen duten gizarte-agenteei. Behin eskaera onartuta, UQAMek "ezagutza mugiarazteko agenteak" deritzenak eskaintzen ditu: profesional horiek bitartekariza-lana egiten dute, ikertzaileek eta gizarte-agenteei ikerketa-ekintza prozesua abiarazi eta garatu dezaten.

Finantziarioari dagokionez, nabarmenezkoa da zenbat finantzabide dituzten halako ekimenez. Azpiegitura horietako gehienek finantziario publikoa dute (zuzeneko laguntzen bidez edo hobari fiskalen bidez), baina baita autofinantziario-sistema bat ere, ekonomia sozialeko agenteek beren lanaren bidez lortutakoa. Bestalde, bada beste diru-funtsa batzuk ere, zeinak ez diren ekonomia sozialerako eskusiboak, baina, hala ere, neurri handi batean, haien bidez finantzatzen dira ekonomia sozialeko jarduerak. Diru-funtsa horien artean daude, esate baterako, sindikatuek kudeatzen dituzten Langileen Funtsak, besteak beste, Quebecoko Langileen Federazioak (FTQ) kudeatzen duen *Fonds de solidarité des travailleurs* eta Sindikatu Nazionalen Konfederazioak (CSN) kudeatzen duen *FondAction*. 1980ko krisialdiak ekarri zuen enplegu-galtzeari eta enpresa-ixteari aurre egiteko, sindikatuek beren afiliatuen pentsio-funtsak erabili

⁶ UQAM unibertsitateko Kudeaketa Zientziako Eskolak bi ikastaro eskaintzen ditu, bata ikasleentzat eta bestea enpresa kolektiboak kudeatzen dituzten profesionalentzat; bestalde, Sherbrooke Unibertsitateak ere, IREBUS institutuaren bitartez, ezaugarri berberak dituzten beste bi programa eskaintzen ditu.

⁷ Adibide batzuk aipatzearen, hona lantalde nagusi batzuk: CIRIEC-Kanada (1966an sortutako lantaldea, CIRIEC-Quebec taldearen bareraren eta bereziki Benoit Levesque ikertzailearen ekimenez) <http://www.ciriec.uqam.ca/>; *Laboratoire de Recherche sur les pratiques et politiques sociales* (1992an sortutako lantaldea; hastapenetan, Yves Vaillancourt buru izan zuena) <http://www.larepps.uqam.ca/>; *Équipe Économie sociale, santé et bien-être* (aurreko proiektuaren barnean sortutako lantaldea, 1997an); *Alliances Universités Communauté en économie sociale* (erakunde publikoen eta unibertsitateen arteko aliantzen ondorioz sortutako lantaldeak, ikerketa aplikaturik proiektuak egiteko) <http://www.aruc-es.uqam.ca/>; *Chaire de Recherche en économie sociales* (Marie Bouchard buru, 2003an sortutako lantaldea, ekonomia sozialeko erakundeak ondo kudeatzeko estrategiak aztertzeko) <http://www.chaire.ecosoc.uqam.ca/>; *Reseaux Québécois de Recherche Partenarial en économie sociale* (2005), etab.

zituzten lanpostuak sortzeko. Ildo horretan, sindikatuak beraiek hasi ziren funtsak sortzen lan-esparruak zabaldu eta diru-iturri berriak bilatzeko; funtsa horietako batzuk helburu orokorretara zuzendu ziren (enpresa txiki eta ertainak laguntzeko, esate baterako), baina beste batzuk, *FondAction* delakoa adibidez, ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko ekimenak laguntzera bideratu ziren zehazki. Sindikatuak, horrenbestez, herrialdearen garpenerako agente bihurtu ziren, eta horrek ondo azaltzen du zergatik duten horrenbesteko prestigioa eta zergatik den horren altua sindikatu-afiliazioaren tasa herrialde hartan.

Nabarmentzekoa da, azkenik, Desjardins⁸ kuxtaren ekarpena, haren bidez kooperatiba-proiektu ugari finantzatu baitziren. Beste finantzabide batzuk dira Réseau Québécois du Crédit Communautaire (RQCC) eta Caisse d' Economie Solidaire delakoak.

Zerbitzu tekniko berezia behar duten ekonomia sozialeko erakundeek *Chantier*-era edo *Conseil*-era jotzen dute bereziki, haiek eskaintzen baitute laguntza mota hori.

⁸ <https://www.desjardins.com/>

4. Gizarte-berrikuntzak definitzeko proposamen kontzeptual eta metodologikoa

4.1. Hurbilketa kontzeptuala: gizarte-berrikuntza CRISESen arabera

Quebeceko berrikuntza-sistema osatzen duten agente nagusiak eta haien jardun-eremuak aztertuta, argi azaltzen da nola ulertzen duten ekonomia soziala kontzeptua: ekonomia sozialak, haien interpretazioan, osagarri kolektibo eta eraldatzailea du argi eta garbi. Definizio ahalik eta orokorrena emate aldera, CRISESek hauxe dio gizarte-berrikuntza prozesuei buruz: "gizarte-agenteei abiarazitako ekimenak dira, helburu dutenak herritarren premiei erantzutea edo haien nahiak asetztea, gizarte-arazoei konponbideak bilatzea edo gizarte-harremanak eraldatzeko, ekintza-markoa aldatzeko edo kultura-joera berriak proposatzeko aukerak sortzea eta bideratzea, betiere, herritarren bizi-kalitatea eta bizi-baldintzak hobetzeko asmoz" (Bouchard, 2013).

Aldaketa-prozesu oro, horrenbestez, ez da gizarte-berrikuntza kategorian sartzen. Definizio horri xehe erreparatuz gero, hiru giltzarri aurkituko ditugu, gizarte-berrikuntzak identifikatzen lagunduko digutenak: abiapuntu bat (gizarte-agenteei abiarazitako ekimenak dira), metodo bat (gizarte-harremanak eraldatzeari begirakoa) eta helburu nagusi bat (herritarren bizi-kalitatea eta bizi-baldintzak hobetzea).

Gizarte-berrikuntza zer den gehiago zehazte aldera, honako baieztapen hauek egin litezke:

- Edozein agente (pribatua, publikoa edo soziala izan) izan liteke gizarte-berrikuntza bat ekarriko duen prozesuaren motorra, baina gizarte-berrikuntza orok dute zerbait komun: bide berriak zabaltzen dituzte gizarte-arazoei erantzuteko, eta erantzun horiek

baliabide berrien bidez artikulatzen dira, lankidetzaitunen eta gizarte-adostasun zabalaren emaitza diren baliabideei esker, alegia.

- Itun eta baliabide berriak sorrarazten dituzten prozesu berritzaile horietan, gakoak dira bai hasierako bultzada bai gizarte-mugimenduei erakusten duten ahalmena baliabideak mugiarazteko. Agente komunitarioen parte-hartzerik gabe, zaila da ulertzea gizarte-berrikuntza bat ekarriko duen prozesua.
- Alabaina, gizarte-mugimenduaren indarrak aparte, ekonomia plural batek eskaintzen duen lur aberatsa behar du gizarte-berrikuntzak garatzeko, hau da, estatua, merkatua eta alor komunitarioa ondo uztartuta dauden ekonomia batek eskaintzen duena. Polanyren arabera, gizarte-integratzaileko beharrezkoak diren hiru elementu nagusiek (elkarrekotasuna, birbanaketa eta trukea) ekonomia pluralean aurkitzen dute sustraitzeko lur aproposa.

Bouchard (2013) autoreak dioenez, ezaugarri horiek dituzten gizarte-berrikuntzak, besteak beste, gizarte-jarduerak hartzen dituen zenbait esparrutan gauza litezke:

- i) Ekoizpen-harremanen esparruan: langileen parte-hartzearen bidez, lana antolatze modu berriak diseinatu litezke, enpresa autogestionatuak sortzeko bideak urratu, etab.
- ii) Kontsumo-harremanen esparruan: zerbitzu-erabiltzaileen parte-hartzearen bidez, kontsumo-zerbitzuak, -programak eta -arauak elkar-eraike litezke, eta kontsumo arduratsua bultzatu, baita turismo eta aisialdi arduratsua ere, etab.

- iii) Enpresa-harremanen esparruan: lankidetzak eta lehia, enpresa-jardueren kanpo-eraginak (esternalitateak), enpresen gizarte-erantzukizuna, etab.
- iv) Gizarte-harremanen esparruan: gobernantza-erakundeak, garapen ekonomiko komunitarioa, etab.

Ezaugarri horiek guztiek bereizgarri egiten dute gizarte-berrikuntzari buruzko gure ikuspegia, eta bereizi egiten dute, orobat, izaera mikroekonomikoagoa duen beste berrikuntza-adiera batetik, alegia, norbanakoen borondateatik sortutako eta merkatuari begirako ekimen filantropikoak hartzen dituen horretatik. Ashoka da, besteak beste, berrikuntza mota hori sustatzen duen erakunde adierazgarrienetakoa bat, Muhammad Yunusena bezalako gizarte-erakundeak (Bangladeshko mikrokredituak) sustatzen dituen heinean (Bouchard, 2013).

Hala, mikroekonomikoagoa eta pertsonalistagoa den nozio horren aurrean, merkatu-bide berriak zabaltzen dituzten pertsonen lidergoan zentratu baino, CRISES erakundeak izaera eta izaera kolektiboagoa duten gizarte-berrikuntzen alde egiten du, hala prozesuei nola baliabide eta emaitzei erreparatuta.

Gizarte-berrikuntzak, horrenbestez, ez dira norbanakoen ekintzaitasunaren emaitzak, baizik eta irismen handiagoko gizarte-prozesuen baitan sortu, hazi eta garatzen diren ekimenak, hain zuzen ere desorekak eta krisialdiak sorrarazten dituzten garapen-eredu makroekonomikoen baitako ekimenak, halako testuinguruetan sortzen baitira bide berriak urratu eta esperimintatzeko ekimen berritzaileak. Gizarte-berrikuntzaren helburua, beraz, bidea egitea da, garapen-eredu batetik beste baterako bidea, gizarte-agenteen beren ekimenez abiatuko dena, eta gizartearen eraldatzea helburu izango duena. Gizarte-berrikuntzaren adiera hau estu lotuta dago, bistakoa denez, ekonomia sozialeko agenteek berezkoa duten logikarekin.

Testuinguru horretan, ekonomia sozialak komunitatearen beharrei eta premiei erantzuten die, baita gutxi garratuta dauden edo berriak diren esparruetan ere, eta gauzak egiteko eta arazoei aurre egiteko modu berriak proposatzen ditu. Betiere ekitatea, berdintasuna eta gizarte-justizia ardatz hartuta, haren helburua da izaera kolektiboa duten eta gizarte-onura ekarriko duten ekimenak abiaraztea (Borzaga eta Defourny, 2004).

Agente pribatuek eta publikoek garatzen duten ekonomia-ereduekin alderatuta, ekonomia sozialak ahalmen berritzaile handia du, bi faktoreri esker: ez du irabazi asmorik, eta, gainera, asmo argia erakusten du zenbait eremu demokratizatzeke. Lehenak konfiantza sortzen du zerbitzu-ekoizleen eta -erabiltzaileen artean; bigarrenak agerian uzten du zenbait gizarte-erakunderen egituratze zurruna oztopo dela gizarte-premiei erantzuteko (Bouchard, 2013).

Bi faktore horien konbinazioari esker, ekonomia sozialak ahalmen handiagoa erakusten du zenbait gizarte-premiari erantzuteko, eta, aldi berean, helmuga argia jartzen dio gizarte-berrikuntzari: gizarte-erakundeak eta gizarte-harremanen nolakotasuna eraldatzea.

Ekonomia sozialak gizarte-berrikuntza prozesuetan parte hartuta, hiru belburu lortu nahi dira: enplegua baxestu eta enplegu berria sortzea; zerbitzuak demokratizatzea, eta komunitatearen parte-hartzea sustatzea herrialdearen garapenari begirako ekimenetan.

4.2. Hurbilketa metodologikoa: gizarte-berrikuntzaren eragin-esparruak

CRISES erakundearen proposamena haren testuinguru historikoan kokatu ondoren, atal honetan hiru aztergai proposatuko ditugu, gizarte-berrikuntza prozesuen diagnosis egiteko balioko diguten tresnak izango baitira.

Horretarako, CRISES erakundeak berak proposatutako marko teorikoan oinarritu gara, marko horrek abiapuntu egokia eskaintzen baitu proposatuko ditugun hiru aztergaiak xehe azaltzeko.

Gizarte-berrikuntza definizioaren barnean, CRISES erakundeak hiru eragin-eremu aipatzen ditu, eta, neurtzeko oso zehatzak ez badira ere, aukera ematen digute gizarte-berrikuntzaren ezaugarri diren elementuak zehaztzeko, haiek proposatutako marko teorikoaren baitan. Klein et al. (2012) autoreen arabera, gizarte-prozesu edo gizarte-ekimen jakin bat gizarte-berrikuntza izango da, gutxienez hiru eragin-eremuotan eragiten badu:

- i) Gobernantza: kontzeptu horren bidez neurtzen da "aurrerabidea egin ote den honako arlo hauetan: kontsulta, akordioa, lankidetzak, parte-hartzaileen aintzatespena, demokrazia deliberatiboa eta demokrazia zuzena".

- ii) Elkar-ekoiztea eta elkar-erakitzea: bigarrenaren bidez neurtzen da "zenbaterainokoa izan den agenteen parte-hartzea, batez ere gizarte mugimenduen, politika publikoak eraikitzeari begira (instituzionalizatzeko-maila)", eta lehenaren bidez, berriz, erreferentzia egiten zaie "aktibatutako edo sortutako zerbitzuei (antolatze-maila)".
- iii) Ekonomia plurala: kontzeptu horren bidez neurtzen da "zenbaterainokoa izan den agenteen ekarpena garapen-ekonomia eta jabetza bezalako gaien askotarikotasunari begira".

Lehen aipatu dugunez, gizarte-berrikuntza ororen helburu nagusia da komunitatearen bizi-baldintzak hobetzea, eta, horrenbestez, hiru eremu horiek ez dira berez helburu. Hala ere, balio dute gizarte-berrikuntzak identifikatzeko eta aztertzeko; izan ere, Quebecen gizarte-

berrikuntza kategorian sartzen den berrikuntza orok neurriren batean eragin behar du hiru eremu horietako bakoitzean.

Horrek esan nahi du gizarte-berrikuntza prozesuek hiru eremu hauetan eragiten dutela: gobernantza (agente askotarikoen parte-hartzea zabaltzen duten neurrian), elkar-erakitzea (politika publikoen diseinuan parte hartzen duten gizarte-agenteen erabakimena zabaltzen duten neurrian) eta ekonomia plurala (prozesu berean jatorriko askotariko baliabideak jartzen dituzten neurrian).

Azpiko taulan, Quebecoko gizarte-berrikuntzen ezaugarri diren elementuei buruzko eskema proposatzen dugu; bertan, gizarte-berrikuntzen helmena eta izaera neurtzen laguntzen duten eragin-eremuak gehitu dizkiogu jardun-esparru bakoitzari.

Taula: Quebecoko ereduaren arabeko gizarte-berrikuntzen ezaugarriak

Eragin-eremuak	Jardun-esparruak		
	Lana	Bizi-baldintzak	Tokiko garapena
Gobernantza hibridoa	Enplegatzaileen eta sindikatuen arteko lankidetzak Enplegatzaileen eta enplegatuen arteko lankidetzak Langileen Funtsak	Elkarlan publiko-komunitarioak, zerbitzuak eskaintzeko Deszentralizazioa eta erregionalizazioa Zerbitzu-erabiltzaileen parte-hartzea	Auzo-, herri- eta lurralde-mailako elkarrekin parte hartzea Artekaritza eta bitartekaritza
Elkar-erakitzea eta elkar-ekoiztea	Lanaren antolamendua eta prestakuntza Produktibitatearen eta errendimenduen definizio bateratua	Politika sozialak elkar-erakitzea Pobreziari aurre egiteko politikak eta funtsak Kolektibo ahulei laguntzeko sistemak	Garapen komunitarioaren aldeko erakundeak Landa Garapenerako Ituna Erakunde komunitarioek eskaintako zerbitzuak
Ekonomia plurala	Enpresaren jabetzan parte hartzea Sindikatuak Ekonomia Soziala babestea Enpresa pribatuak, Estatua eta langileen funtsak bateratzea	Kooperatiba solidarioak Osasun-kooperatibak Elkarlanak Etxebizitza sozialak eta kooperatibak Hezkuntza-proiektuak	Tokiko Garapenerako Langile Funtsak Funtsa publikoak Baliabideak lortzeko ekimenak Bitartekaritza

Iturria: Moulart et al., 2012: 381 (The International Handbook on Social Innovation).

Taula-laburpen horren atzean dagoen ikuspegiaren arabera, horrenbestez, zenbait jardun-esparrutan esperimenduak diren dinamikak gizarte-berrikuntzen kategorian sartzekotan, ezaugarri nagusi batzuk partekatuko dituzte, eta hala irakurri behar da taula hori.

Gobernantzari dagokionez, lankidetzak eta elkarlan publiko-pribatuak dute ezaugarri komuna, toki zein lurralde mailakoak, bitartekaritza bertikala (gubernua eta tokiko agenteak) edo horizontala (sektoreartekoak) baliatuta. Ildo horretan, gizarte zibilaren ordezkari diren erakundeek eginkizun zentrala eta zeharkakoa dute.

Elkar-erakitzeari dagokionez, agente askotarikoen arteko konpromisoari esker sortzen dira halako dinamikak, eta horren ondorioz abiarazten diren politika publikoek aintzatetsi eta balioetsi egiten dituzte gizarte zibilaren erakunde ordezkariak. Gizarte zibilak erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea, orobat, gizarte-berrikuntzen beste ezaugarri nagusietako bat da.

Azkenik, gizarte-berrikuntza dinamiken beste ezaugarri bat da ahalmen handia erakusten dutela askotariko finantzabideak (publikoak, pribatuak, sozialak) mugiarazteko eta erakartzeko, eta, horren ondorioz, jabetza-sistema hibridoak dituzten erakundeak sortzen dira haien baitan.

4.3. Gizarte-berrikuntzen eragin-eremuak zehazte aldera

CRISES erakundearen azterketa oinarri hartuta, gizarte-berrikuntzen hiru eragin-eremuak xeheago aztertuko ditugu orain. Azken helburua da tresna bat lortzea, ahalik eta zehatzena, eragin-eremu horietako bakoitzean identifikatuko diren adierazleak jasoko dituen eta haiek neurtzeko balioko duena.

Proposamen honek, alabaina, hasiera-hasieratik du muga bat: gure ustez badira gizarte-berrikuntzak identifikatzeko eta ebaluatzeko objektibatu litezkeen adierazleak, baina oraingoz hipotetikoak baino ez dira, ez baitira agenteek beraiek beren premiak edo interesak aztertzetik ateratako ondorioen emaitza. Hortaz, proposamen honek ez du inplikaturako agenteen kontrasterik; esan bezala, ebaluazio-tresna operatibo bat egiteko eskakizuna ez da haiengandik sortu, ezta horretarako baliatu dugun adierazle multzoa definitzekoa ere.

Muga handi hori hasieratik aitortuta, esan beharra daukagu ondoren datorren proposamena ariketa teoriko bat baino ez dela, helburu duena aipaturako eragin-eremu bakoitzeko alderdi esanguratsu batzuk identifikatzea, haiek neurtzeko itemak bihurtu litezkeenak eta gerora operatiboagoa izan litekeen elaborazio baterako oinarri izan litezkeenak.

Gobernantza

Gobernantzari dagokionez, lehen ere esan dugu gizarte-berrikuntzek zenbait lankidetzat eta elkarlan-mailatan eragiten dutela, zenbait lurralde-mailatan, dela bitarte-

karitza bertikalaren bidez, dela bitartekariza horizontalen bidez, eta gizarte zibilaren erakunde ordezkarien zeharkako parte-hartzea izaten dutela.

Bestalde, gizarte-berrikuntzaren ardatzetako batek erreferentzia egiten dio gizarte-harreman berriak sortzeko (eta harreman horiek ahalduzko) ahalmenari, baita harreman-modu berri horiek sorrarazten dituzten gobernantza-modu berriei ere (Moulaert et al., 2005; González et al., 2010).

Gizarte-berrikuntza, ildo horretatik, *prozesu-berrikuntza* da, harreman-dinamikak -botere-harremanak barneraldatzeko tresna den neurrian. Hala, *gizarte-harremanak eta ahalduzko-prozesuak hobetzea* helburu bihurtzen da (Moulaert et al., 2013). Horrek esan nahi du gizarte-berrikuntza emaitza bat baino zerbait gehiago dela. Emaitzaz haratago, inplikaturako agenteen arteko harreman-dinamikak eraldatzeko ahalmena duen prozesua bera ulertu behar da, eta aztertu, orobat, zein neurritan ahalbidetzen duen gobernantza-modu berriak sortzea.

Abiapuntua hori izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu definitzea zer elementu nagusik ezaugarritzen dituzten gobernantza-modu berriak. Elementu edo alderdi horiek zeintzuk diren jakiteak bidea emango digu aztertzeko zer neurritan agenteen arteko harreman-eraldaketek eragin edo erraztu dezaketen gizarte-berrikuntza prozesuak gertatzea.

Elementu gakoetako batek erreferentzia egiten dio agenteen artean sortzen den aliantzaren nolokotasunari. Zehatzago esateko, Camarinha-Matos eta Afsarmanesh (2006) autoreen lanean oinarrituko gara, eta hiru aliantza mota bereiziko ditugu: informazio-trukea, kooperazioa eta kolaborazioa.

Informazio-trukeak elkarri laguntzeko komunikazio-trukea du helburu. Kooperazioak, informazio-trukeaz haratago, jarduerak birdefinitzea eta zehaztea eskatzen du, emaitza hobeak lortze aldera. Dena dela, parte-hartzaile bakoitzak bere helburua du, eta, horrenbestez, nork bere premiei erantzuteko, nork bere baliabide eta metodoak erabiliko ditu.

Kolaborazioa, berriz, elkarlana da, kolektiboa, helburu bateratua duena. Inplikaturako agenteek elkarren artean definitzen dute zein den aurre egin nahi dioten erronka edo arazoa, eta elkarren artean zehazten dute zer egingo

duten helburua lortzeko. Aliantza mota horrek bat egiten du gizarte-berrikuntzak izan nahi duen perspektiba kolektiboarekin.

Moulaert eta Nussbaumer (2005) autoreek diotenez, ikaskuntza-prozesu kolektiboen bidez garatzen da arazo eta erronka berriei aurre egiteko ahalmena; izan ere, halako prozesuetan nor bere ezagutza besteekin partekatzen duenez, ikaskuntza-prozesuak helmen handiagoa du, eta bide ematen du ahalmen berriak sortzeko.

Ikaskuntza-prozesuak "sozializatzeko" helburuarekin bat etorrira, gizarte-berrikuntzak balioetsi egiten du askotariko agenteak sartzea halako prozesuetan (Crisis, 2003; Moulaert, 2000). Moulaert eta Nussbaumer (2005) autoreek diotenez, agenteen askotarikotasunak askotariko ezagutza integratzea dakar, eta, orobat, askotariko ikuspuntuak izateak biderkatu egiten ditu konponbideak aurkitzeko aukerak.

Beste elementu gakoetako batek aipamena egiten die harreman-botereak, erabaki-hartzeak eta lidergoa kudeatzeko prozedurei. Zenbait lidergo mota dago, eta, ildo horretan, gizarte-berrikuntzaren perspektiba kolektiboak zenbait baldintza betetzea eskatu behar du. Botere-jokoek edo alde bateko erabakiak hartzeko arriskuak, hortaz, kolokan jar dezakete elkarlana eta gizarte-berrikuntza garatzeko ahalmena. Horrenbestez, azpimarratzekoa da zein garrantzitsua den lidergo partekatua garatzea.

Lidergo partekatua prozesu bat da, non inplikaturako agente guztiek parte hartzen duten, elkarren beharra duten eta elkarri eragiten dioten (Karlsen eta Larrea, 2012). Egoera horretan, ez dago agenterik besteen gainean agintzeko boterea duenik. Lidergoa, baina, eraiki egin behar da; ez dago hasieratik. Denbora behar du, eta agenteen nahi izate soilak ez du bermatzen lidergo partekatua sortuko denik.

Hortaz, arazoa ez da diseinu perfektu bat lortzea, baizik eta pertenezia-sentimendua sortzea, horrek ahalbidetuko baitu agenteek erantzukizuna erakuts dezaten prozesuak izango dituen une kritikoetan. Horrenbestez, prozesu kolektibo bati buruz ari gara, non elkarren beharra duten agente batzuk elkarlanean arituko diren helburu jakin bat lortzeko, bestela lortuko ez litzatekeena, eta, ildo horretan, lidergo partekatuak handitu egiten du ikasteko ahalmena.

Gakoa izango da aztertzea nola integratzen diren halako prozesuetan bestelako esparru edo prozesuetan lidergo handiagoa izan ohi duten agenteak; horrek bidea emango digu neurtzeko zenbaterainoko aukera eta ahalmena izango duen lidergo partekatua eraikitzeke helburuak. Era berean, kanpoko baliabideen mende egotea mehatxu izan liteke lidergo partekatua eraikitzeke, eta, beraz, kontuan hartu beharreko faktorea izango da.

Bestalde, nabarmentzekoa da ekimenak garatzen laguntzen duten pertsonen eginkizuna. Izan ere, pertsona horien ezagutzek eta ahalmenek erabaki dezakete neurri batean zer lidergo mota sortuko den halako ekimenen baitan (Estensoro, 2012), eta, horrenbestez, hori ere kontuan hartu beharreko beste faktore kritikoa izango da.

Elkar-ekoiztea eta elkar-eraikitzea

Gizarte zibilak parte hartzea erabakiak hartzen diren prozesuetan: hortxe dago gizarte-berrikuntza prozesuetan gertatzen diren elkar-eraikitzeak azaltzeko gako nagusia.

Eta ezaugarri horrek bereizten du elkar-ekoizte prozesuetatik; izan ere, prozesu horietan, gizarte-agenteen parte-hartzea mugatua da, zenbait ondasun eta zerbitzu hornitzeari begirakoa, eta, gehienetan, administrazio publikoak berak bakarrik egindako diseinu eta planifikazioaren arabera, gainera.

Zenbait modu edo eredu dago elkar-ekoizte eta elkar-eraikitze prozesuetan, eta elkar-eraikitze demokratiko eta solidarioa da ondoen egokitzen dena gizarte-berrikuntza prozesuetara (Vaillancourt, 2013). Autore horren arabera (Vaillancourt 2013:48): "Kalitatezko politika publikoen elkar-eraikitze demokratiko eta solidarioak ekonomia sozialaren aldeko agenteen parte-hartzea eskatzen du, eta, orobat, Estatuaren eta agente horien arteko kide-tza-harremana".

Prozesu jakin batean zenbateraino ari den elkar-eraikitzea gertatzen neurtzeko balioko dituzten itemak proposatu aurretik, beharrezkoa da irudikatzea elkar-eraikitze prozesua bera. Hortaz, Vaillancourt (2011) autorearen ekarpen teorikoa baliatuko dugu, zenbait ideia argitzeko asmoz.

Elkar-eraikitzea ez da elkar-ekoiztea. Vaillancourt (2011) autorearen arabera: "*elkar-ekoiztea politika publikoak*

abiarazteko prozesuei dagokie, eta Estatuko agenteen eta Estatukoak ez diren agenteen parte-hartzea inplikatzeko du. Estatukoak ez diren agenteak merkaturako edota gizarte zibilekoak dira (hirugarren sektorea). Azken buruan, elkar-ekoizteak erreferentzia egiten die zerbitzuak eta produktuak era jakin batean antolatzeko politika publikoari (zerbitzuak eta produktuak nola eskaini); elkar-erakitzeak, berriz, politika publikoak gidatuko dituzten oinarri eta irizpideak sortzeari egiten dio erreferentzia (politika publikoak eraiki)."

Elkar-ekoiztea kontzeptua, horrenbestez, oso hurbil dago Evers (1991,1993) eta Pestoff (1999) edo Johnson (1999) autoreek, besteak beste, proposatzen zuten *welfare mix* edo *mixed economy of welfare* hartatik. Hala, prozesu jakin batzuei buruz ari da, non, irabazi asmorik izan edo ez, zenbait erakunde pribatu lankidetzan ari diren interes publikoa duten zerbitzuak eskaintzeko, eta horregatik pentsatzen da elkar-ekoizteak *"eginkizun garrantzitsua izan dezakeela sistema politiko demokratikoak berritzeko eta Ongizate Estatua konfiguratzeko"* (Pestoff et. al. 2006: 593).

Elkar-erakitzea kontzeptua, alabaina, haratago doa; Vaillancourt (2011) autorearen arabera: *"elkar-erakitzea lotuta dago ez bakarrik politika publikoak abiarazteko edo aplikatzeko prozesuekin, baizik eta baita politika publikoak berak pentsatzeko eta sortzeko prozesuekin ere"*.

Elkar-erakitzeaz ari dela, hala ere, autore horrek lau eredu bereizten ditu: i) bateko elkar-erakitzea, non Estatuak bakarrik hartzen dituen erabakiak; ii) elkar-erakitze neoliberal -boladan dagoena lurralde askotan, *New Public Management* delakoaren korrante nagusiak lortu duen ospeari esker-, non Estatuak akuilatu egiten den politika publikoak egin ditzan sektore pribatuko agenteekin batera, hau da, merkatu-ekonomiako agente sozioekonomiko nagusiekin batera; iii) elkar-erakitze korporatibista, non jarduera sozioekonomikoari lotutako zenbait sektorek eta sindikatuetako eta patronaleko zenbait agentek soilik parte hartzen duten elkarrizketan, eta, horrenbestez, soilik haiek hartzen dituzten erabakiak Estatuarekin batera; eta, azkenik, iv) elkar-erakitze demokratiko eta solidarioa.

Azken eredu asko hurbiltzen da guk planteatzen dugun ideiarra, ezaugarri jakin batzuk dituen neurrian (Vaillancourt, 2013):

1. Estatuak beste bazkide bat gehiago da, ezberdina, eta beste agenteekin batera hitz egin eta deliberratzeko du; besteen "gaitetik" baina "ondoan" dago aldi berean.
2. Elkar-erakitze demokratikoak aldaketa bat eskatzen dio Estatuari; haren arabera, Estatuak gizarte zibilarekin elkarlanean aritzeak ez dakar merkaturako ekonomiako agenteekin ez aritzea. Hori ekonomia pluralaren perspektiban sartzen da bete-betean.
3. Demokrazia ordezkatzailaren eta demokrazia parte-hartzailearen onena hartzeko bidea eskaintzen du.
4. Ekonomia sozialeko agenteen parte-hartzea baliostea inplikatzeko du, baita Estatuaren eta agente horien arteko elkarlana ere.

Helburua da, beraz, item batzuk sortzea, balioko digutekin neurtzeko zenbateraino hurbiltzen den proposatutako eredu administratiboa publikoen eta ekonomia sozial eta solidarioen aldeko erakundeen arteko harremana, eta, horretarako, Savard eta Proulx (2011) autoreek proposatutako eredu garatuko dugu orain, lau alderdi nagusi aztertzea eskatzen duena.

Lehen aztergaia da pluralismo instituzionala bera, eta horren barnean aztertu beharko da administratiboa publikoek zer neurritan ezagutzen dituzten zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten erakundeak eta zenbateraino aitortzen eta baliosten dituzten.

Bigarrenik, beharrezkoa izango da neurtzea zenbateraino maiztasunarekin jarduten duten elkarrekin eta elkarlanean, zenbat jarduera formal eta ez-formal egiten dituzten elkarrekin.

Hirugarrenik, aztertu beharko da zenbateraino diren formalak haien arteko harremanak, eta, horretarako, ikusik beharko da ea badiren (edo ez) alderdi biek adostutako itunak, hitzarmenak, kontratuak edo prokoloak, gutxi-asko iraunkorrak.

Eta, laugarrenik, bada aztertu beharreko beste alderdi bat, delikatuagoa baina berebiziko garrantzia duena: botere-harremanen simetria, eta, horretarako, baloratu beharko da zenbaterainoko ahalmena duen alde bakoitza zer zerbitzu eta zertarako eskainiko diren determinatzeko eta zehazteko (alde biek eragin-maila bera baldin badute, orduan harremana simetrikoa izango da).

Ekonomia plurala

Ekonomia pluralari dagokionez, azkenik, gizarte-berrikuntza prozesuek beste ezaugarri komun bat dute: jabetza-sistema hibridoak erakusten dituzte, baliabide eta finantzabide publikoak, pribatuak eta sozialak baliatzen dituzten neurrian. Testuinguru horretan, hala ere, ekonomia sozial eta solidarioak eginkizun estrategiko garrantzitsua du; izan ere, gizarte-berrikuntzen ezaugarri-gakoetako bat da askotan ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko erakundeen baitan sortzen direla halako ezaugarriak dituzten ekimenak.

Abiapuntua da merkatu-ekonomian zentratutako ekonomia-ereduak, sektore publikoa tartean gutxi-asko sartuta egonda ere, ez diela erantzuten gizarte-berrikuntzen oinarri eta irizpideei.

Gizartea eraldatzea helburu duen gizarte-berrikuntzaren ikuspegitik, behar-beharrezkoa da demokrazia ekonomikoa izatea eta gizarte-erakundeen parte-hartzea gizarte-garapen ekonomikorekin lotutako alderdi guztietan: diseinua, ekoizpena, banaketa.

Irabazi asmorik gabeko gizarte-erakunde askotarikoen parte-hartzea ezinbesteko baldintza da ekonomia demokratizatzeko eta gizartea eraldatzeko. Gizarte-berrikuntza prozesu batek merkatu-ekonomiaz kanpoko espazioak zabaldu behar ditu. Irabazi asmorik gabeko hirugarren sektoreak bere espazioa izan behar du, sektore publikoaren edo merkatuaren mende aritzeko beharrik gabe, eta hori pluralismo ekonomikoren oinarria da, gizartea berritzeko eta eraldatzeko dinamikak aktibatzen dituzten oinarri sendoa, hain zuzen ere.

Finantzabideak bermatuta ez izateak kolokan jar dezake gizarte-berrikuntza prozesuen iraunkortasuna; arrisku hori erreal da, eta gizarte-ekimenen kudeatze administratiboa etetea eragin dezake, edo, areago, gizarte-ekimenak hasieratik ezin abiaraztea (Martinelli, 2013). Horrek esan nahi du autosufizientzia-pritzipioak gidatu behar dituela ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko erakundeak, iraunkorrak izango badira.

Horrenbestez, helburua da aztertzea nola kokatzen diren halako erakundeak beren ingurune ekonomikoan, nola egiten duten beren bideragarritasuna eta iraunkortasuna epe luzera bermatzeko eta nola lortzen duten leku ekonomiko nabarmena egitea "ekoizpen- eta banaketa-katean".

Neurtu beharrekoa da ea zenbateraino diren autonomoak halako erakundeak beren ingurune ekonomikoari begira eta beren jarduera ekonomikoa eta soziala garrantzeari begira, hau da, zenbateraino diren autonomoak sektore publikoarekin eta merkatuko agente eta erakundeekin dituzten harremanetan. Interesgarria izango da aztertzea, orobat, zenbateraino diren askotarikoak bai erakundeak beraiek bai haien jarduerak, horrek bide emango baitu jarduera-eremuek bat egiten duten puntua ezartzeko.

Taula: Item zerrenda, eragin-eremuak neurtzeko

Eragin-eremuak	Itemak
Gobernantza	Aliantza motak (informatiboa/kooperatiboa/kolaboratiboa)
	Ahalmen berriak elkar-sortzea
	Askotariko ezagutzak integratzea
	Erabakiak hartzeko prozedurak
	Lidergo partekatua
	Kanpoko baliabideekiko mendekotasuna
	Prozesuak errazten dituzten agenteak izatea
Elkar-erakitzea	Pluralismo instituzionalari bidea zabaltzea
	Harremanen maiztasuna (formalak/informalak)
	Harremanen formaltasun maila
	Botere-harremanen simetria
Ekonomia plurala	ESaren garrantzi ekonomikoa balio-kateetan
	ESaren autosufizientzia ekonomikoa (mendekotasun eza)
	Baliabide hibridoak (publikoak, pribatuak, sozialak)

Iturria: Egileek sortua.

Ondorioak

Modu bat baino gehiago dago gizarte-berrikuntza kontzeptua definitzeko, eta lan honen helburua izan da kontzeptura hurbiltzea ikuspegi sozietario eta ez-utilitarista baten bidez, hau da, gure gizartearen ongizatea helburu duten eraldaketa-prozesuak ahalbidetzen dituen ikuspegi baten bidez. Lan honen egileak, gehienbat, Quebeceko ereduari oinarritu dira gizarte-berrikuntza kontzeptuaren definizioa zehazteko. Eredu horren ezaguerri den gakoetako bat da bai gizarte-erakundeek bai gobernu-erakundeek garrantzia ematen diotela ekonomia sozialaren aldeko politika publikoak sustatzeari, eta, horrenbestez, aintzat hartu ez ezik, balioetsi ere egiten dutela ekonomia sozialean diharduen kolektiboa, eta ezinbesteko solaskide bihurtzen dutela politika publikoak definitzeko prozesuetan.

Azken garaian, bestalde, mundu akademikoko zenbait ikertzailek azpimarratu dute gizarte-berrikuntza kontzeptuaren garrantzia, eta zenbait argitalpenek, besteak beste *The International Handbook on Social Innovation* delakoak (Gizarte-berrikuntzari buruzko Nazioarteko Gidaliburua) (Moulaert et al., 2013), kontzeptua beste ikuspegi batetik aztertzeko marko bateratua indartu dute. Ikuspegi horrek gizarte-berrikuntzaren helmen politiko eta soziala nabarmentzen du, garapen-estrategia alternatiboak diseinatzeko ezinbesteko osagaia den aldetik.

Ilido horretan, gizarte-berrikuntza ideia-motora da, elkartasuna eta ekitatea bezalako balioak gorpuzten dituen, eta, haren baitan sortzen dira gizarte inklusiboa eraikitzearen aldeko ekintza eta ikerketak.

Ikuspegi horren arabera, hortaz, gizarte-berrikuntza balioekin eta praktika alternatiboekin konprometituta

dago, eta hortxe berreskuratzen dute ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek beren protagonismoa eta zentralitatea.

Hala, Quebeceko *Centre de recherche sur les innovations sociales* (CRISES) erakundearen lana erreferentzia hartuta, lan honen helburua izan da gizarte-berrikuntza eta ekonomia sozial eta solidarioa lotzen dituen kontzeptura hurbiltzea. Ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko esperientziak premia eta behar kolektiboak erantzun nahian sortzen dira, eta, askotan, sektore berriak edo gutxi garatuak zabaltzen dituzte, eta ahalmen handia erakusten dute gauzak beste era batera egiteko, arazoei beste modu batez erantzuteko, betiere, ekitatea, berdintasuna eta justizia soziala bezalako balioak ardatz hartuta, eta, hala, izaera kolektiboa eta soziala duten ikaskuntza-bideak zabaltzen dituzte.

Ekonomia sozial eta solidarioak, horrenbestez, gizarte-beharrei erantzutea du helburu, eta, horretarako, dinamika parte-hartzaileak, autogestionatuak eta igualitariorak sustatzen ditu. Bi funtzio horiek betetzen dituen aldetik, ekonomia sozial eta solidarioak ahalmen eraldatzaileak hornitzen du gizarte-berrikuntza, eragile bihurtzen du. Lan honetan hiru eragin-eremu aztertu ditugu: gobernantza, elkar-erakitzeta eta ekonomia plurala; eta eragin-eremu horien izenek beraiek adierazten dute zenbateraino duten halako gizarte-berrikuntzek izaera kolektiboa. Gizarte-berrikuntzek bide ematen dute askotariko agente ekonomikoak bildu (publikoak, pribatuak eta sozialak), eta elkarlanean jardun eta sortu dezaten, eta, gizarte-beharrei beste era batera erantzuteaz batera, botere-harremanak eraldatzen laguntzen dute, horizontaltasuna bilatzen baita, bai prozesuan parte

hartzen duten agenteen arteko harremanetan, bai prozesuen emaitza diren sistemen barne-antolamenduan.

Premisa horiek abiapuntu hartuta, lan honen helburu nagusia izan da gizarte-berrikuntza kontzeptuaren beste adiera bat proposatzea, ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko esperientzietara hurbiltzen due-

na, eta, halaber, haren indar eraldatzaileak eragin ditzakeen eremuak seinatu dira. Azkenik, item zerrenda bat proposatu dugu, gizarte-berrikuntzek eragiten duten inpaktua ezagutzen, ebaluatzen eta neurtzen lagunduko dutelakoan.

Bibliografía

- Aguilera Klink, F. (2013): "Hardin, Ostrom y los recursos de propiedad común: un desencuentro inevitable y necesario", *Documentación Social*, 185. zk, 49-65. or.
- Bollier, D. (2003): "El redescubrimiento del procomún" (online), <http://biblioweb.sindominio.net/telematica/bollier.html> (kotsulta, 2011/12/13)
- Borzaga, C. & J. Defourny (2001): *The emergence of social Enterprise*, Routledge: Londres.
- Bouchard, M. (2005): "De l'expérimentation à l'institutionnalisation positive, l'innovation sociale dans le logement communautaire au Québec", *Cahiers du CRISES* - Collection Études théoriques - no : ET0511 .
- Bouchard, M. (2013): "Introduction: the social economy in Québec, a laboratory of social innovation" en Bouchard, M. (ed.) *Innovation and Social Economy: the Québec experience*, University of Toronto Press: Toronto.
- Bouchard, M. et Lévesque, B. (2010): "Économie sociale et innovation. L'approche de la régulation, au coeur de la construction québécoise de l'économie sociale", *Cahiers du Centre de recherche sur les innovations sociales (CRISES)*, Collection Études théoriques - no ET1103.
- Bussièrès, D; Caillouette, J; Fontan, J.M; Soussi, S.A; Tremblay, D.G. & Tremblay, P.A. (2012): "La recherche partenariale au CRISES", *Cahiers du Centre de recherche sur les innovations sociales (CRISES)*, Collection Études théoriques - no ET1301.
- Camarinha-Matos, L.M. eta Afsarmanesh, H. (2006). *Collaborative networks -Value creation in a knowledge societ*, en Proceedings of PROLAMAT, 2006 IFIT international conference on knowledge enterprise - New challenges (Shanghai, China). Springer: Boston.
- Coraggio, J.L. (2009): "Polanyi y la economía social y solidaria en América Latina", in Coraggio, J.L. (org.), *¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo*, Buenos Aires, Ciccus, 109-160. or.
- Defourny, J. et Monzon Campos, J.L. (dir.) (1992): *Economie sociale, entre économie capitaliste et économie publique*, CIRIEC et de Boeck Université: Brusela.
- Estensoro, M. (2012) *Local networks and socially innovative territories. The case of the Basque region and Goierri county*, Doktorego-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, Euskadi.
- Estensoro, M. eta Zurbano, M. (2010): "Innovación social en la gobernanza territorial. Los casos de Innobasque y de las redes comarcales en la CAV", *Ekonomiaz*, 74. zk., 132-160. or.
- Evers, A. (1991): "Shifts in the welfare mix", *Eurosocia*, 57/58, 7-8.
- Evers, A. eta Svetlik, I. (1993): *Balancing pluralism : new welfare mixes in care for the elderly*, Avebury: Londres.
- Fontan, J.M, Longting, D et René, J-F. (2013): "Recherche participative à l'aune de la mobilisation citoyenne : une innovation sociale de rupture ou de continuité?", *Nouvelles Pratiques Sociales*, 25. libk., 2. zk., 125-140. or.

- Harvey, D. (2012): *Rebel cities: from the right to the city to the urban revolution*, Verso: Londres-New York.
- Jessop, B., Moulaert, F., Hulgard, L. and Hamdouch, A. (2013), "Social innovation research: a new stage in innovation analysis?", in Moulaert, F., MacCallum, D., Mehmood, A. and Hamdouch, A., *The International Handbook on Social Innovation, Collective action, Social learning and transdisciplinary research*, Edward Elgar Publishing: Cheltenham, UK.
- Jetté, C. et Vaillancourt, Y. (2009): "L'économie sociale et les services de soutien à domicile au Québec : co-production ou coconstruction", *Cahiers du LAREPPS/UQÀM, École de travail social, Université du Québec à Montréal : Montreal*.
- Johnson, N. (1999): *Mixed Economies of Welfare: a Comparative Perspective*, Pearson Education, Prentice Hall Europe, Hertfordshire.
- Karlsen, J. eta Larrea, M. (2012) "Emergence of shared leadership in situations of conflict – Mission impossible? Long term experiences from a local network in the Basque Country", in Sotarauta, M., Horlings, I. eta Liddle, J. (Eds.) *Leadership and Change in Sustainable Regional Development*. Routledge: Londres.
- Klein, J.K. (2013): Introduction: social innovation at the crossroads between science, economy and society, in Moulaert, F., MacCallum, D., Mehmood, A. and Hamdouch, A., *The International Handbook on Social Innovation, Collective action, Social learning and transdisciplinary research*, Edward Elgar Publishing: Cheltenham, UK.
- Klein, J.L; Fontan, J.M; Harrisson, D et Levesque, B. (2012): "La innovación social como factor de la transformación social: el caso del modelo quebequense", in Grellier, H; Gago, M; Arando, S. (coord.): *La Economía social y solidaria: ¿un paradigma más actual que nunca?*, Mondragon Bilduma: Arrasate (Gipuzkoa).
- Levesque, (2011a): "Innovations sociales et pouvoirs publics : vers un système québécois d'innovation dédié à l'économie sociale et solidaire. Quelques éléments de problématique", *Cahiers du Centre de recherche sur les innovations sociales (CRISES)*, Collection Études théoriques - no ET1106
- Levesque, B. (2011b): "L'institutionnalisation des services québécois de garde à la petite enfance à partir de l'économie sociale: un processus qui s'échelonne sur plusieurs décennies", *Cahiers du Centre de recherche sur les innovations sociales (CRISES)*, Collection Études théoriques - no ET1105
- Levesque, B. (2013): "How the social economy won recognition in Québec at the end of twentieth century", in Bouchard, M. (ed.) *Innovation and Social Economy: the Québec experience*, University of Toronto Press: Toronto.
- MacCallum, D., Moulaert, F., Hillier, J. eta Haddock, S. (2009) (Ed.) *Social Innovation and Territorial Development*. Ashgate: Farnham, Ingalaterra.
- Moulaert, F. eta Ailenei, O. (2005). "Social economy, Third Sector and Solidarity Relations: A Conceptual Synthesis from History to Present". *Urban Studies* 42 (11): 2037-2053.
- Moulaert, F. and Nussbaumer, J. (2005). "The social region: beyond the territorial dynamics of the learning region". *European Urban and Regional Studies* 12: 45-64.
- Moulaert, F., Martinelli, F., Swyngedouw, E. eta Gonzalez, S. (2005). "Towards alternative model(s) of local innovation". *Urban Studies* 42 (11): 1969-1990.
- Moulaert, F., MacCallum, D. and J. Hillier (2013), "Social innovation: intuition, precept, concept, theory and practice", in Moulaert, F., MacCallum, D., Mehmood, A. and Hamdouch, A., *The International Handbook on Social Innovation, Collective action, Social learning and transdisciplinary research*, Edward Elgar Publishing: Cheltenham, UK.
- Pestoff, V. (1999): *Beyond the Market and State. Social Enterprises and Civil Democracy in a Welfare Society*, Aldershot, Brookfield, Singapore, Sydney & Tokyo: Ashgate & English Editions.
- Pestoff, V., Osborne, S., Brandsent, T. (2006): "Patterns of Co-Production in Public Services. Some concluding thoughts", *Public Management Review*, 8. libk., 4. zk., 591-595. or.
- Polanyi, K. (2012), *La economía como proceso instituido*, FCE: Mexiko.
- Renes, V (2013): "Una sociedad que se hace cargo de sí misma: reciprocidad, cooperación y los bienes comunes", *Documentación Social*, 185. zk., 119-133. or.

Savard eta Proulx (2011): *Outil d'analyse des rapports à l'État*, LAREPPS, UQAM: Montreal.

Vaillancourt, Y. (2011): "La economía social en la co-producción y la coconstrucción de las políticas públicas", Centro de Estudios de Sociología del Trabajo-ren aldizkaria, 3.zk., 1-38. or.

Vaillancourt, Y. (2012): "Le tiers secteur dans la co-construction des politiques publiques canadiennes", *Cahiers du Centre de recherche sur les innovations sociales (CRISES)*, Collection Études théoriques - no ET1203.

